Idiazabalgo Udala

4,2

IDIAZABALGO HAURRENTZAKO UDALEKU IREKIAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Klausula-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hauxe da: Idiazabalgo haurrei zuzendutako udaleku irekiak antolatzea, 3-12 urte bitartekoak (2023-2014 urteetan jaiotakoak), espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorrita; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

CPV kodea: 55243000-5

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Udako oporraldietan haurrentzako aisialdi eskaintza bat antolatzea da udaleku irekien helburua. Udaran zehar 3 eta 12 urte bitarteko haurrei (jaiotze urtea 2023-2014 bitartekoak) oporretan gozatzeko aukera ematea; euskararen erabilera, parte hartzea, aniztasuna, kultura eta naturarekin gozamena sustatuz.

3. GAUZATZEKO EPEA / IRAUPENA

Epea guztira: urte bat
Epe partzialak: ez

Udaleku irekiak, uda garaian, lau asteko iraupena izango dute.

4. LUZAPENA

Kontratuak luzapen bat eduki ahal du, urtekoa eta erakunde kontratatzailaren alde bakarreko nahitara.

5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 49.180,60€ BEZari dagokiona (%10) 4.918,06€, hau da, aurrekontua guztira 54.098,66€koa da (BEZ barne) urtekoa. Aurrekontu hau hobetu dezakete lizitatzaileek.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, luzapena kontutan hartuta, 108,109.32€ takoa da.

Aurreko urtean 164 haurrek parte hartu zuten Udaleku irekietan. Gaur egungo haurren presentziaren banaketa kontuan hartuta, 150 plaza inguru eskaintzea aurreikusten da (17 begirale eta zuzendaria).

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (hemendik aurrera, SPKL) 100.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako, aurrekontua honela dago banakatuta:

- Langile-kostuak: 41.063,98€
- Gainontzeko gastu guztiak: 8.116,62€

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 49.180,60€ da, BEZa aparte urte bateri dagokiona da, luzapena kontutan hartuta 98.361,20€ takoa da.

Horretaz gain, udalak, gehienez ere, 3.000€ko poltsa bat izango du behar bereziak dituen haurren batek udalekuetan izena ematen badu; betiere aurreikusitako begiraleekin ezin bazaio erantzun eta beste begirale berezi baten kontratazioa baloratzen bada.

6. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa, 1.227.00.323.00.2026 aurrekontu-aplikazioan.

7. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Prezioa zatikatuta ordainduko da. Horretarako enpresa esleipendunak asteko faktura bat aurkeztuko du, aste horretan egindako lanei dagokiena.

Faktura onartu ondoren, SPKLren 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da.

Faktura elektronikoa: Fakturak formatu elektronikoan bidali beharko dira **Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorraren (GFAP)** bidez
https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

Unitate organikoen DIR3 kodigoak:
Idiazabalgo Udala
Organo kudeatzailea: L01200436
Unitate izapidegilea: L01200436
Kontabilitate bulegoa: L01200436

8. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Martxoaren 30eko 2/2015 Legea –Espainiako ekonomiaren desindesazioarena– garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta sektore publikoko kontratuen prezioa berraztertzeko baldintzak arautzen dituen SPKLren 103. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honetan ez da aplikagarria aipatutako berrikusketarik.

9. BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren %5 izango da, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea 17. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.
Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio partez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

10. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, SPKLren 159. artikuluko 1 apartatutik 5. apartatura artean ezarritakori jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jarduerei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzen

11. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.
Lizitazio honetan parte hartzeko ezinbestekoa da Euskadiko Lizitatzaileen erregistroan alta emanda egotea. Hala ere, Aldatu egiten da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duena. Aldaketak lege hau indarrean sartzen denetik izango ditu ondorioak, eta epe mugagabean egongo da indarrean. Hona nola geratzen den idatzita: Aldatu egiten da 159. artikuluaren 4. apartatuaren a) letra, eta honela idatzita geratzen da: «A) Prozedura sinplifikatu honen bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute, edo, hala badagokio, 96. artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, dagokion Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizialean, eskaintzak aurkezteko azken egunean, betiere lehia mugatua ikusten ez bada. Ondorio horietarako, lizitatzailearen proposamena ere onargarritzat joko da, baldin eta egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu duela, horretarako behar den dokumentazioarekin batera, betiere eskaera hori eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Inguruabar hori egiaztatzeko, dagokion erregistroak egindako eskaeraren hartu-agiria eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.»

12. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

1) **Hartzailearen esku jartzea**.

2) **Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea**.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

13. KONTRATATZEKO GAITASUNA

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte eta ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere. Kaudimena 17. klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatuko eta ebaluatuko da.

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Lizitatzaileek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute, edo, 96. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera bidezkoa denean, dagokion autonomia-erkidegoko erregistro ofizialean, eskaintzak aurkezteko azken egunean.

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena:

1.- AUTOMATIKOKI BALORATUTAKO IRIZPIDEA: 80 PUNTU.

a) PREZIOA: 75 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lehiatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da, LP=(Eb/Le) x 75
Honako hauek izanik:

LP: lehiatzailearen puntuazioa
Eb: eskaintza baxuena
Le: lehiatzailearen eskaintza

b) KALITATE irizpidea. 5 puntu, gehienez.
Udaleku irekiak zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza espezifikoa, genero-ikuspegiari eta berdintasunari buruzkoa.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
a. 10 eta 15 ordu arteko prestakuntza: 2 puntu
b. 16 ordu edo gehiagoko prestakuntza: 5 puntu
2.- BALIO- IRITZIEN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 20 PUNTU

MEMORIA TEKNIKOA

1.- Udaleku irekiak Gaztematikan kokatzea
2.- Helburuak lantzeko estrategiak
3.- Ebaluazio parte hartzailearen proposamena
4.- Ekintza berritzaileen proposamenak

15. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Mahaiburua: funtzionarioa
- Bokalak: idazkaria, teknikaria eta zinegotzia
- Mahaiko idazkaria: udaleko idazkaria

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, 15 egun naturaleko epean, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Gardentasuna eta kontratuko jarduerari buruzko informazio publikoa izango dela bermatzeko eta bestelako bideak erabiltzearen kalterik gabe honako helbide honen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean: www.Idiazabal.eus Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria. Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 6 egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu eta ez da aldaerarik onartuko. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek bi gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta; klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

Idiazabalgo
Udala

4,2

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «GAITASUNA, KAUDIMENA »

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a. Posta elektronikoko helbide gaitua.
Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b. Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina)
Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 17. klausuletakoak.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

c.- Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d.- Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALIO-IRIZPIDE SUBJEKTIBOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK»

Balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak, zeinak agiri honetako 13. Klausulan adierazita baitaude. Proiektuaren luzera ez da izango 20 orrialde baino gehiagokoa. (II. Eranskina: Proiektua).

«C» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK»

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a.- Proposamen ekonomikoa, III. eranskineko ereduaren araberakoa (III. Eranskina).

b.- Udaleku irekiak zuzendu eta koordinatzeko arduradunen genero-ikuspegiari eta berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoaren egiaztagiriak (ikastaroa egin izanaren ziurtagiriak, prestakuntza-orduak adierazita).

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

18. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

1.-«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKI
Kontratazio-mahaiak, «A» gutun-azala irekiko du elektronikoki, eta egiaztatuko du hartan jasotako dokumentazioa.

Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak hiru egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera (zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu).

2.- «B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKI ETA AZTERTZEA

Ondoren, «B» gutun-azala irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean iragartzen den tokian, egunean eta orduan, eta honako jardun hauek egingo ditu eta teknikariaren eskuetan utziko da balorazioa egin dezan.

- Baztertu egingo ditu klausula-agiriko eskakizunak eta betebeharrak betetzen ez dituzten eskaintzak, halakorik badago.

3.- «C» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKI ETA LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKOAK

1.- Jakinaraziko du balio-iritzi baten araberako irizpideak balioestearen emaitza.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
2.- Automatikoki ebaluatzekoak edo formulak erabiliz zenbatestekoak diren irizpideak balioetsiko ditu.

3.- Eskaintza bakoitzak guztira lortutako puntuazioa ezarriko du, eta puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu eskaintzok.

4.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio-proposamena egingo du.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste izanez gero, 149. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzeagatik, artikulu horretan ezarritako prozedurari jarraituko dio; dena den, ezin izango da izan 5 egun baliodun baino luzeagoa izan lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko duen epea, dagokion komunikazioa igortzen zaionetik.
Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

5.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera joko du, eta kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzailearen datuak egiaztatuko ditu: haren izaera, gaitasuna, eta kontratatzeko debekurik ez izatea.

6.- Komunikazio elektronikoaren bidez, kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari eskatuko dio zazpi egun balioduneko epean (komunikazioa igortzen zaionetik) jarduketa hauek egin ditzan edo dokumentu hauek eman ditzan:

a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

b. Lizitatzailearen esku beharrezko diren baliabideak jarriko dituzten erakundeen konpromisoa, hala badagokio, SPKLren 75.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

c. Dokumentazio egiaztagarria, kontratuaren egikaritzean erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartu zuen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeko, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

d. Lizitatzaileak kaudimen ekonomiko, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala duela ziurtatu beharko du:

d.1) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
Azken hiru urteetako urteko negozio-bolumena – Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Erregistro ofizialetan kontuak aurkeztera behartuta ez dauden enpresaburuak egiaztatzeko ordezko gisa, behar bezala legeztatuko kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.

Nahikotzat joko da azken 3 urteetan bolumen handiena izan duen urteko negozio-zifra, gutxienez, kontratuaren batez besteko urte ekonomikoaren %75 izatea.

d.2) Kaudimen teknikoa edo profesionala

Kontratuaren helburu diren lanen antzeko izaera duten, egindako lan nagusien zerrenda, azken hiru urteetatik gauzatze handieneko urteari dagokiona, adieraziz zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa nahiz pribatua. Zerbitzu edo lan horiek dagokion organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada. Hartzailea subjektu pribatua bada, berak egindako ziurtagiri baten bidez edo ziurtagiri hori ezean, enpresariaren aitorpen baten bidez, eta aitorpen horrekin batera, enpresariak berak edukiko dituen agiriak, prestazioa egin izana ziurtatzen dutenak, aurkeztu beharko dira. Azken hiru urteetatik gauzatze handieneko urtean gauzatutzat egiaztatu behar den urteko zenbateko metatua, kontratuaren urteko batez bestekoaren %75aren parekoa edo hortik gorakoa izan beharko da.

Zerbitzua eskainiko duten langileen baldintza minimoak:

Udaleku irekietako koordinatzaile taldea:

Haur eta gazteen aisialdiko zuzendaria, honako hauekin: haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza- jardueretako zuzendariaren diploma, Eusko Jaurlaritzak edo beste autonomia-erkidego batzuek emana; profesionaltasun-ziurtagiriak, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jarduerak zuzendu eta koordinatzeko; animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren titulua; irakaskuntza eta animazio sozio-kiroleko goi-mailako teknikariaren titulua; edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako beste titulazio baliokide bat.
Enpresa esleipendunak bermatuko du funtzioak egiteko esleitutako langileak ondorengoak beteko dituela:

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGA edo baliokidea).
- Sexu delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea.
- Udaleku irekietan esperientzia izatea.

Udaleku irekietako begirale taldea:

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begiraleren diploma, Eusko Jaurlaritzak edo beste autonomia-erkidego batzuek emana, edo haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jarduerak dinamizatzeko profesionaltasun ziurtagiria, edo natura eta aisialdi inguruneko gidari teknikariaren titulua edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako beste titulazio bat.
- Titulaziorik ez dutenen kasuan esperientzia izatea udaleku ireki edo itxietan.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGA agiria edo baliokidea).
- Sexu delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea.
- 18 urte beteak izatea.

Horrez gain, kaudimena egiaztatzeaz gain, lizitatzaileek beren eskaintzetan zehaztutako behar adinako baliabide pertsonal eta materialak atxiki beharko dizkiote kontratua egikaritzeari. Behar adinakotzat jotzen dira horri dagokionez preskripzio teknikoen agirian zehaztutakoak.

Baliabide horiek kontratuari atxikitzea funtsezko kontratu-betebehartzat joko da; horrenbestez, SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honi dagokion erregistro ofizialen baten egiaztagiria edo Europar Batasuneko ziurtagiria aurkeztu.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

4- ERREKERIMENDUA BETE EZEAN

Horretarako emandako epean adjudikaziodun izateko proposatutako hautagaiak ez baditu aurkeztu behin betiko bermea eta eskatu zaizkion gainerako dokumentuak, puntuazio onenetan hurrena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio behin betiko berme hori jar dezan.

19. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Gehienez 5 egun naturaleko epean Kontu-hartzailetzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, 159.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratazio-organoak kontratuaren adjudikazioa ebatziko du, lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Adjudikazio-jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezin izango baita 15 egun baino gehiagokoa izan, adjudikaziodunak administrazio honetara jo behar du kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatzeko.

20. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Idiazabalgo Udaleko gazteria teknikaria izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

22. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistaren gain joango da kontratuaren egikaritzea, agiri honetan jasotako klausulei eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoei jarraituz.

Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

23. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

23.1. Hizkuntza betebeharrak

1. Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. Artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.
Idiazabalgo Udalean hizkuntzen erabilerari buruz indarrean dagoen araudia honako hau da: Idiazabalen euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa (2025-2034) (2025eko ekainaren 5ean onartu zuen Osoko Bilkurak) eta Idiazabalgo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2023ko urriaren 26an onartu zuen Osoko Bilkurak).

2.-Hizkuntza-gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileak administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko ditu hizkuntza-gaitasunei dagokienez; horregatik, kontratuak herritarrekin, zein Udalarekin, ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, langileak, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila daukala (EGA edo baliokidea) egiaztatu beharko da.

Eskaintza onuragarriena aitortu eta 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako euskara maila. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horri ere eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko du.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

a. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea. Dekretu honetan jasotzen diren agirien bitartez egiaztatuko da hizkuntza gaitasuna: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
b. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Euskara maila egiaztatzen ez dutenen kasuan, beste langile bat(tzuk) aurkeztu ahal izango ditu eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak. Bigarren saiakera

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
honetan lortuko ez balu, eskaintza bertan behera utzi duela ulertu eta hurrengo eskaintzarik onuragarriena lizitatzaileari egingo zaio Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietan jasotako errekerimendua.

3.- Zerbitzu-hizkuntza

Oro har, udal langile zein ordezkari politikoekiko harremanak euskaraz izango dira. Horrez gain, Udalean aurkezteko txostenak eta memoria ere euskaraz izango dira. Zerbitzuaren hartzaileekiko harremanetan ere euskararen erabilera bultzatuko da:

a. Umeekin dena euskaraz egingo da.
b. Eta guraso, herritar eta bestelakoekin izan beharreko harremanei dagokienez, Udalak onartuta daukan Euskara Normalizatzeko Planean jasotakoak bete beharko dira, hartzaileen hizkuntza eskubideak ere errespetatuz. Hemen orientabide batzuk:

a. Idatzizko harremanak:
a. Umearen izen-ematean galdetuko da gurasoekiko harremanak euskaraz edo elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz, euskara lehenetsita) izango diren.
b. Bestelakoetan ere euskararen erabilera lehenetsiko da.

b. Ahozko harremanetan:
a. Oro har, lehen hitzak beti euskaraz izango dira eta jarrera proaktiboa izango da; hau da, mezu hartzaileak euskara ulertzen badu euskaraz jarraitzeko gonbita egingo zaio (“ahobizi” jarrera).
b. Harremana banakakoa denean, aurrez aipatutako “ahobizi” jarrera izango da, ahal bada euskararen erabilera bultzatzeko, baina hartzailearen arabera moldatuko da hizkuntza.
c. Hartzaile multzoa denean, euskararen erabilera bultzatzeko aukera desberdinak aztertuko dira (Udaleko Euskara Zerbitzuan eska daiteke aholkularitza). Irizpide orokor moduan, Udalak aukera hauek bultzatzen ditu:

a. partaideen gehiengoak euskara ulertzen badu, euskaraz izatea azalpen nagusiak eta euskara ulertzen ez dutenei bakarkako azalpenak ematea edota hizkuntzaren trataera aztertzerakoan euskarari lehentasuna ematea.
b. partaideen gehiengoak euskara ulertzen ez badu, eta saio bakarra egin beharra badago, saioa elebitan egitea, lehenik euskara erabiliz eta ostean gaztelania.

4.- Hizkuntza-paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak irudi ez sexisten bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.
Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.
Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

5.-Harremanak administrazioarekin

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
Enpresa adjudikazio-hartzaileak Idiazabalgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

6.-Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Idiazabalgo Udaleko Hezkuntza eta Berdintasuna zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena.
6.1.-Hizkuntzarekin lotutako baldintzak zein neurritan bete diren jarraitzea

Kontratua sustatzen duen administrazio-unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntza baldintzak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egiteaz arduratuko dena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen antzera eta antzeko epeekin, Euskara Zerbitzuari horren berri emanez. Azken horrek onarpena eman edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu. Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:
Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzentzekoak.

Bestalde, enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (besteak beste, kontratua, faktura, albaran, txosten, bilera eta ahozko zein idatzizko kontsultak) administrazioarekin lan hizkuntzaren araberakoak izango dira. Idiazabalgo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honek funtsezko betebeharraren izaera du. Ondorioz, klausula hori nola edo hala ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.

Hori gertatuz gero, adjudikazio-hartzaileak ez du izango kalte-ordainik erreklamatzeko eskubiderik eta, gainera, galdu egingo du ezarritako behin betiko fidantza.

23.2. Enpresa esleipendunaren lan eskubideak eta betebeharrak

1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik esleipendunak Udalari horren berri emango dio.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

Zehazki, kontratua formalizatu aurretik edo gauzatzen ari dela aldaketaren bat gertatzen bada adierazitako pertsonetan, betebehar berberak betetzen dituzten beste batzuekin ordezkatuko dituzte, baina aldez aurretik beharrezkoa izango da Euskara Departamentuak horren berri jakitea, egiaztatzea eta baimentzea. Gainera, hori guztia behar bezala jasota geratuko da espedientean.

Esleipendunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Idiazabalgo Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango esleipendunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

2. Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzaileek, esleipena lortzen badute.

Halaber, behin kontratua esleitu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartutako egongo dira.

3. Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.

4. Enpresak, zerbitzuaren balantze ekonomikoa aurkeztu beharko du. Zerbitzuari lotutako gastu guztien fakturak aurkeztu beharko ditu, baita, langileen lan kontratu eta soldatari dagokiona.

5. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.

23.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak

1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeari buruzko jardunbidearen VII. eta VIII. apartatuak betez. Jarraibide hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2019ko martxoaren 5eko bilkuran, eta 2019ko maiatzaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (87. zk.).

2.- Igorritako dokumentu guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Lege horren babesean, argitara daitezkeen irudietan, pertsonak ez dira erakutsiko sexu batekoak edo bestekoak izateagatik giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo objektu sexual soilak direla, estereotipo sexistak saihestuko dira eta sexu-dibertsifikazioa, rolen dibertsifikazioa eta genero-identitatearen dibertsifikazioa bultzatuko dira.

Dokumentazio eta material guztietan emakumearen edozein irudi diskriminatzaile eta/edo estereotipatu ezabatuko da, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta erantzukidetasunaren balioak sustatuko dira.

3.- Sexu aldagaia eta genero adierazleak sartu behar dira proiektuaren esparruan egiten den azterketa eta jarraipeneko lan guztian.

24. KONTRATISTAREN LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren zerbitzuetan kontratatuko dituen langileei dagokienez, kontratista behartua dago lanaren, gizarte-segurantzaren zein laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren araberako lan-baldintzak ere. Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik.

25. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna.

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak. Aldaketa horiek guztiak bete beharrekoak izan beharko dira kontratistarentzat.

27. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere (xedapen hori Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta), Datu pertsonalak Babesteari et

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
Eskubide Digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin batera.

1.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira entitate kontratatzailearekin duen harremana amaituta ere.

2.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da; baita entitate kontratatzaileak xedatutakoa betez ere.

3.- Esleipendunak ezingo ditu datu horiek hirugarrengoei laga edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.

4.- Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neuri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko, aukera horiek bai giza jardueratik beretik bai ingurune fisiko edo naturaletik datozenak izan daitezkeelarik.

5.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

6.- Kontratuko prestazioa amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

28. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez hilabeteko epean, haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa gauzatuko da. Kontratu honen izaera kontuan hartuta, ez da bermealdirik ezartzen.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

29. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).
Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

B. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren %10en baliokidea den zigorra ezartzea.

C. Prestazioa oker gauzatzea

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

D. Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. Artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren 50.

30. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan daude ezarrita.

31. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta:

1. Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko,
2. merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak,
3. kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta
4. SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena.

32. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

33. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

Idiazabalgo Udala

4,2

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

34. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

35. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

I. ERANSKINA. KONTRATUAK EGITEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

Izen-abizenak: ..... Helbidea: .....
……..….Posta-kodea .....
NAN-zenbakia: .....Telefonoa: .....Helbide elektronikoa:……
.....

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari:

Izen-abizenak: ..... Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia edo IFK-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den);.....
Telefonoa: .....

Jakin dut.....k prozedura abiarazi duela……..
……kontratatzeko.

Neure erantzukizunpean,

ADIERAZTEN DUT

I. Aipatutako sozietateak, haren administratzaileek eta legezko ordezkariek, eta halaber sinatzaileak, ez dute kontratatzeko debeku eta bateraezintasunik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotakoetatik.

II. Sozietateak beterik ditu indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak eta lan eta gizarte alorrean indarrean dauden xedapenak.

III. Sozietatea alta emanda dago Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren dagokion epigrafean.

IV.- Sozietateak ez du administrazio kontratatzailearekiko zerga-zorrik epe exekutiboan, edo bermatuak ditu.

IV. Sozietateak betetzen ditu kontratu hau lortzeko administrazio-klausula partikularren eta teknikoan ezarritako eskakizun guzti-guztiak.

V. Lizitatzailea inskribatuta dagoela Estatuko edo Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean eta ziurtagiria ofizioz eransteko baimena ematen duela.

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2
VI. Honako hau dela jakinarazpenak egiteko nire posta elektronikoaren helbidea:

Email:……

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren.....(e)(a)n

Sinadura

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

4,2

II. ERANSKINA. Proiektua / memoria Teknikoa. (Gehienez 20 orrialde).

ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren……..(e)(a)n

Sinadura

Idiazabalgo
Udala

III. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Izen-abizenak: ..... Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia: .....
Telefonoa: .....
Helbide elektronikoa: .....

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari:
Izen-abizenak: ..... Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia edo IFK-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den).....;
Telefonoa: .....

Jakin dut.....k prozedura abiarazi duela
. kontratatzeko.

ADIERAZTEN DUT

1) Konpromisoa hartzen dut hura egikaritzeko prezio honetan:.....€ eta % .....(e)ko BEZari dagozkion ..... Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak: zergak, gastuak, edozein zerga esparrutako tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-etekina, besteak beste.

2) Genero-ikuspegiari eta berdintasunari buruzkoa ikastaroak ondorengoak dira:…….

3)Ezagutzen ditut preskripzio teknikoen agiria, administrazio-klausula partikularren agiria eta kontratu hau eraenduko duten gainerako dokumentu guztiak. Denak esanbidez onartu, eta ontzat hartzen ditut beren osotasunean.

4)Ordezkatzen dudan enpresak betetzen ditu irekitzeko, ezartzeko eta funtzionatzen hasteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren.....(e)(a)n

Sinadura

EKS | CSV: ESKU7e9dfcac-c7c7-4289-9fd3-4716dd8eafc4
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04310

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026KOIR0001-plegu administratiboak euskeraz/pliegos admtvos euskera (,,Idazkaritza)

Digitalki sinatua:

Iñaki Alberdi Iparragirre
ALCALDE
Data: 2026/03/12 16:17:34